

# Garajeko aitzindariak

1955eko otsailean Silicon Valley-n jaiotako **Jobs**-ek ondo ezagutzen zuen zientziaren arlo hori, bere aitzakoa argiketaria baitzen.

**Wozniak** 1950eko abuztuan jaio zen Kalifornian, Silicon Valley inguruan hau ere.



**G**araje batean lanean hasi ziren bi gazte ausartek sortu zuten informatikaren historiako sagar ezagunena. Steve Jobs-ek eta Steve Wozniak-ek Apple enpresa sortu zuten eta ordenagailuen munduari beste irudia eman zioten, milioika jarraitzaileen sinpatia erakarriz. Euren Macintosh ordenagailua, produktu berezia bilakatu zen, PC arrunten aurkako borrokaren eredu. Hala ere, lehia komertzial horretan ezin izan dituzte Microsoft sistema duten ordenagailuak menderatu.

Steve Jobs-ek eta Steve Wozniak-ek ('Woz') 1974. urtean ezagutu zuten elkar institutuan eta berehala lagunak egin ziren elektronika oso gustukoa zutelako. 1955eko otsailean Silicon Valley-n jaiotako Jobs-ek ondo ezagutzen zuen zientziaren arlo hori, bere aitzakoa argiketaria baitzen. Hala ere ikasle gisa ez zen azkarrenetakoa izan. Portland eko (Oregon) Reed Collegen denbora gutxi eman zuen eta emaitzak ere ez ziren oso onak izan. Denbora labur batean Atari-n -bideojolasen munduan enpresa aitzindaria- eta Hewlett Packarden lan egin zuen.

Jobs-ek Wozniak konbentzitu zuen harekin batera ordenagailu pertsonala sortzen lan egiteko. Bien artean Apple I diseinatu zuten Jobs-en logelan eta prototipoa bere garajea egin zuten. Ordenagailu pertsonalak saltzeko enpresa sortzea erabaki zutenean, euren gauza preziatuenak saldu zituzten 1.300 dolar lortuz. Jobs-ek bere Volkswagen autoa saldu zuen eta Wozniak HP kalkulagailu zientifikoa. 1976an 666 dolarretan, fabrikatutako ordenagailua komertzializatzen hasi ziren. Ordenagailu hori, 1975ean sortutako Altair 8.800 izeneko lehen ordenagailu pertsonala baino sofistikatuagoa eta erabilgarriagoa zen. Lehen urtean 774.000 dolarreko salmentak egin zituzten. Ondoren, konpainia azkar indartu zuen Apple II sortu zuten, berrikuntza eta diseinu-aldaketa handiarekin. 1983. urtean enpresak 2.000 milioi dolar fakturatu zituen.

Apple enpresaren proiektuan, enpresa sortu zuten bakoitzaren zereginak beti argi egon ziren. Wozniak, ordenagailuak fabrikatzen zituen ingeniari elektronikoa zen eta Jobs, berriz, marketingeko aditua. Elkarren arteko lana oso ondo zihoan, baina 1981. urtean Wozniak-ek berak gidatzen zuen hegazkinak istripua izan zuen. Ondorioz, amnesia izan zuen, eta ez zen 1983. urtera arte errekuperatu. Urte horretan Apple enpresara itzuli zen. Bi urte beranduago, Jobs-ekin sortutako tirabirek eraginda, enpresatik alde egin zuen.

Wozniak 1950eko abuztuan jaio zen Kalifornian, Silicon Valley inguruan hau ere. Lockheed enpresako ingeniari baten semea, txikitatik elektronikarako trebea bazen ere, ikasketetan ez zen oso ona. Coloradoko unibertsitatean porrot egin eta gero, Kaliforniakoa ere utzi egin zuen Hewlett Packard-en lan egiteko. Apple enpresa utzi ondoren, CL9 enpresa sortu zuen. Enpresa honek, telebistarako urrutiko kontrolak eta etxetresna elektrikoak egiten zituen. Horretan jardun zuen 1989. urtera arte. Ondoren irakaskuntzan hasi zen. Gaur egun Kaliforniako Los Gatos herrian haurren informatika irakaslea da.

Jobs ere ez zen Apple enpresaren buru askoz ere denbora gehiago izan. Wozniak-ek utzi eta denbora gutxira, postua utzi eta NeXT softwarea enpresa sortu zuen. 1984. urtean, George Orwell-en liburuan oinarritutako eszenaratzearen bitartez, Macintosh (Mac) ordenagailu iraultzailea aurkeztu zuen. Lan handia egin zuen horretan eta arrakasta oso azkar heldu zitzaion. Baina, proiektuaren inbertitzaile nagusia zen Pepsi-rekin



Bien artean  
Apple I  
diseinatu zuten  
Jobs-en logelan  
eta prototipoa  
bere garajea  
egin zuten.

izandako tirabiren ondorioz, Job-ek konpainia utzi zuen eta ez zen hamai-ka urte igaro arte itzuli.

Mac berezia zen, IBMk garatutako sistema eragilea eta garai hartan nahiko ezezaguna zen Microsoft izeneko software-konpainiaren MS-DOSekiko oso diferentea. Ordenagailu sinplea zen, What You See is What You Get (ikusten duzuna daukazu) bezala ezagutzen zen sistema grafikoa zuen eta ikonoen bidez lan egiten zen. Mac berehala gazteria, askatasun, hezigaiztasun eta inkonformismoaren sinbolo bihurtu zen.

Produktu berria etxeetan sartzen ari zela, egileak proiektua utzi zuen. NeXTen Jobsek enpresaren izen bereko ordenagailua diseinatu zuen, funtzio askorekin baina oso garestia. Bestalde, George Lucas zine-zuzen-dari eta produktoreari berak zuen Lucasfilm inperioaren animazio-zatia erosi zion eta Pixar izena jarri zion. Enpresa honek Toy story plazaratu zuen, oso-osorik ordenagailu bidez egindako lehen film luzea.

Steve Jobs-en bizitza Apple enpresatik erabat kanpo zegoela zirudie-nean, 1996an informatikako sagarrak NeXT erosi zuen. Jobs, bitarteko aholkulari bezala itzuli zen, baina berehala lehendakariak dimititu egin zuen eta Jobs bera jarri zen berriz enpresaren buruan. Ez zuen enpresa-tik soldatarik jaso nahi izan, urteko dolar sinboliko bat izan ezik. Hala ere, Jobs-en itzulerak atsekabetu egin zituen Mac-en jarraitzaileak. Microsoft-ek 150 milioi dolar inbertitu zituen Apple enpresan, honek ez baitzuen Macintosherako programen fabrikatzaile nagusiarekin negoziatzea ez zen beste aukerarik. Bi konpainiak elkarren aurka lehiatzeari utzi zioten eta bategite horren ondorioz sagar zibernetikoa irabazten atera zen, porrot egiteko zorian baitzegoen.

Jobs-ek gainera, iMac ordenagailu trinko eta gardena merkaturatu zuenean, diseinu erakargarria izateaz gain, interneten aldeko apustua egin zuen. Macintosh eta PC arrunten arteko gero eta bateragarritasun handiagoa izan da, Apple enpresak azken urteetan merkaturatutako jarraitze-ko arrazoi nagusia. Era berean, erakutsi du gainerako produktuekin parekatu behar dela, baina beti ere bere jarraitzaile zintzoek hain gustukoa duten diseinuari eutsiz, ez baitute ahazten eurek maite duten ordenagai-lua garaje batean sortu zela.

Ordenagailu pertsonalak saltzeko enpresa sortzea erabaki zutenean, euren gauza preziatuenak saldu zituzten 1.300 dolar lortuz. Jobs-ek bere Volkswagen autoa saldu zuen eta Wozniak HP kalkulagailu zientifikoa.